



2020ko URTEKO MEMORIA

ETOLE ELKARGOAREN URTEKO MEMORIA

2020. URTEA

GASTEIZ, 2021eko URTARRILA.

ARGITARATZAILEA:

Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa ETOLE.

EGILEAK:

ETOLE elkargoaren Kide Anitzeko Batzordea.

HELBIDEA:

Euskadiko Terapeuta Okupazionalen Lanbide Elkargoa (ETOLE)

65 Posta-kutxa, Gasteiz 01001

Telefono-zenbakia: 644 524 492

Helbide elektronikoa: etole@etole.eus

AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA	4
1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA	5
Misioa.....	5
Ikuspegia.....	5
Gobernu-batzordea	5
Estatutuak.....	6
2. ELKARGOKIDEAK	6
1. ERANSKINA.....	7
3. DEFENTSA PROFESIONALA	7
4. INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.	8
5. ETENGABEKO TREBAKUNTZA.....	8

6. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA 9

Bizkaiko Osasun Foroa.....

Haurren eta nerabeen Arretarako Arloko Batzorde Iraunkorra

Eskuliburuak eta Txostenak

ETOLEren *newsletter*-ak

ETOLE sare sozialetan

7. LANKIDETZA ESTATU MAILAN 11

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra

Socinto

Lankidetza-hitzarmenak

8. LIBURUTEGIA..... 11

9. KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA 12

10. ONDORIOAK 13

0. AURKEZPENA

2020. urtea oso ezohikoa izan da guztiontzako, COVID-19a dela eta. Zailtasunak zailtasun, ETOLEk lanean jarraitu du, elkargokideei, okupazio-terapiari eta gizarteari laguntzeko eta bere ekarpena egiteko.

Barne-mailan, eta eskuarki gertatzen ari den bezala, aldaketak izan dira ETOLEren batzorde orokorrean eta lan-batzordeetan; bere onena eman eta ahalegin handia egin duten pertsonak kargua utzi dute, eta beste kide batzuk sartu dira.

Horren harira, nabarmentzekoa da gogo, ahalegin eta sormen horri esker, ETOLEko bi elkargokidek Zabalkunderako/Promoziorako Batzordea sortzea proposatu dute, lanbideari buruzko informazioa ezagutzera emateko eta partekatzeko, gure figura zerbitzuetako lantaldeetan sartu beharra aitortu eta baloratu dadin.

Azaldutako guztiarekin lotuta, Batzordeak eskerrak eman nahi dizkie batzordeetan parte hartu duten eta parte hartzen duten guztiei, bai eta ETOLEra

laguntza bila, informazioa partekatzera, mezu elektronikoei erantzutera, eskaera egitera eta beste zuzentzen direnei eta Elkargoarekin kolaboratzen duzuen, laguntza ematen diguzuen eta animatzen gaituzuen guztiei ere: eskerrik asko zuen irmotasun eta ahaleginagatik. Guztiona da ETOLE. Guztiok gara ETOLE!

Euskadin eta, beste elkargo, elkarte eta erakunde batzuetako kideekin batera, estatuko lurralde osoan okupazio-terapiak duen egoera hobetzeko helburuz jarraitzen dugu lanean.

2020an, ilusioz eta grinaz lan egin dugu, gure lanbidearen eta elkargokideen alde hormak eraisten jarraitzeko. Azkenik, esan behar da memoria batean ezin dela islatu egunez egun egiten den lana, baina azkeneko hilabeteetako lorpenik garrantzitsuenen zertzelada batzuk eskainiko dizkizuegu, eta gure lana gertutik ezagutzera animatzen zaituztegu, hau ezinezkoa izango bailitzateke guztion laguntzarik gabe!

Agur t'erdi

Miren Valverde, ETOLEko lehendakaria.

1. EGITURA ETA FUNTZIONAMENDUA:

XEDEA

Euskadiko Okupazio-terapeuten Elkargo Profesionala (ETOLE) kideen lanbidea eta interesak ordezkatzeko eta defendatzeko helburuz sortu zen, euskal gizartearen eta Estatukoaren interes eta beharrekin bat etorritik, eta lanbide soziosanitario honen jardunbide ona sustatzeko helburuz, erabiltzaileek beren eguneroko zereginetan autonomia hobetu dezaten, bizitza independente, egoki eta produktiboa lortzeko bidean lagunduz.

IKUSPEGIA

a) Okupazio-terapiako profesionalaren jardun-esparru ezberdinetan dituen eginkizunen zabalkundea egitea: pertsonenganako eta haien osasun fisiko eta mentalarekiko jarduketak, zein autonomia-maila handiagoa eta bizitza-kalitate hobea lor dezan, haren ingurunera egokitzeko eginkizuna.

b) EAEko okupazio-terapeuten kolektiboa kohesionatzea. Tradizioz, kolektibo aktiboa da elkartearen esparruan, eta sektorearen barruan koordinazioa eta kohesioa sustatzen eta bultzatzen jarraitu nahi du elkargoak.

c) Profesionalen etengabeko prestakuntza sustatzea, zerbitzuen kalitatea hobetzea sustatuz.

GOBERNU-BATZORDEA

- **Lehendakaritza:** Miren Valverde
- **Lehendakariordetza:** Erika Salagre
- **Idazkaria:** Sara Martinez
- **Diru-zaintza:** Antonio Caridad
- **Probintzia-ordezkaritzak:**
 - **Araba:** Antonio Caridad/Maite Martínez
 - **Gipuzkoa:** Ane Larrañaga
 - **Bizkaia:** Natalia Ceán// hutsik dago postua
- **Liburutegia:** Miriam Ballano//hutsik dago postua
- **Arabako trebakuntza-batzordea:** Raquel Ruiz, Leire Atiega, Nagore Salazar, María Ricarte, Henar Menéndez, Lorea Castillo eta Leire Santana.
- **Bizkaiko trebakuntza-batzordea:** Honako hauek osatzen dute, gaur egun, Bizkaiko prestakuntza-batzordea: Nerea González, Leire López, Janire Ibarrondo, Maialen Pérez eta Natalia Ceán.
- **Bizkaiko trebakuntza-batzordea:** Gaur egun ez dago inor batzorde horretan.
- **Intrusismo-batzordea:** Miryam García, Ruth Esteban, Mireia Puertas eta Rakel Ruiz. Gaur egun deseginda dago batzorde hori.

ETOLEk sei talde-batzar presentzial egin ditu Gasteizen, ETOLeren egoitzan, askotariko gaiak lantzeko eta agiriak eta gai-zerrendak prestatzeko; eta online bidezko beste 20 batzar egin ditu, talde-lana eguneratuta mantentzeko. Horiez gain, beste batzar asko ere egin ditu, eta koordinazio-lanak erakunde eta lan-talde ezberdinekin.

ESTATUTUAK

Aurten, ETOLEren eguneratutako behin betiko estatutuak argitara emateko beharrezko tramiteei heldu zaie berriro. Tramite horiek ez dute emaitzarik eman, beraz, lanean buru-belarri jarraitzen dugu gai horretan lanean.

2. ELKARGOKIDEAK:

21 alta eta 7 baja egon dira 2020an. Urte amaieran, 223 elkargokide zituen guztira ETOLEk (ikus 1. eranskina).

Elkargokideek ETOLEk antolatutako batzarretan izan duten parte-hartzeari dagokionez, hona hemen datuak:

Ohiko Batzarra Gasteizko Seminarioan, 2020ko azaroaren 15ean: 37 elkargokide (horietako 8 bertan egon ziren, eta beste 29 elkargokidek modu telematiko hartu zuen parte).

3. DEFENTSA PROFESIONALA

2020an, Proyecta aholkularitza-zerbitzuarekin batera, ondoren adierazten diren gaiak landu dira:

- Urtean zehar, gutunak eta mezu elektronikoak bidali dira Abeletxe eta San Martin egoitzetara. Erantzunik jaso ez genuenez, telefonoz deitu genuen bietara, eta jasota geratu zen.
- Mezu elektronikoa bidali genion Patxi Marroquini, Zumaiaiko pleguekin lotuta; ez dugu erantzunik jaso.
- Geriatriaren eta hezkuntzaren arloetako Terapia-okupazioari buruzko informazio-txostenak aztertu eta onetsi ditugu.
- Euskal Herriko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialak sare sozialetan jarri duen hezkuntzari buruzko aurreko erantzuna abian jartzea.
- Harremanetan jarri gara Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Lan Sailarekin.
- Harremanetan jarri gara Pilar Antonekin, behar bereziak dituztenentzako heziketaren gaiari buruz hitz egiteko arduradun gisa.
- Online bidezko hiru batzar egin ditugu, hainbat gai lantzeko: 2020ko azaroaren 19an, abenduaren 3an, eta abenduaren 17an.

Horrez gain, abokatuen kabinetearekin harremanetan jarri gara, gai juridikoak lantzen joateko.

4.-INFORMAZIO- ETA ZEHAPEN-PROZEDURAK.

Euskal Herriko Fisioterapeuten Elkargo Ofizialaren Hezkuntza bideoari erantzuteko informazio- eta zehapen-prozedura ezarri da, eta gai horrekin jarraitzen dugu oraindik.

Informazio- eta zehapen-prozedura bat konpondu dugu, adineko pertsonentzako Gipuzkoako egoitza bateko zuzendaritzarekin. Probintzia bereko beste egoitza batekin, ordea, prozedura horretan murgilduta jarraitzen dugu.

2020. ekitaldi honetan ez da zehapen-prozedurarik egin.


5.-ETENGABEKO TREBAKUNTZA

ETOLEren Prestakuntza-batzordeak 2 prestakuntza-ekintza proposatu zituen 2020an, eta horietako bakarra egin ahal izan zen.

1. *“Okupazio-terapiatik, taldekako teknika aktiboen aplikazio Osasun Mentalean ”* martxoaren 13, 14 eta 15erako planifikatuta zegoena. Azkenean, baina, bertan behera geratu zen, osasun arloko larrialdi-egoeragatik.

**“APLICACIÓN DE
TÉCNICAS ACTIVAS
GRUPALES DESDE
TERAPIA
OCUPACIONAL EN
SALUD MENTAL”
Cesar Perez/Jorge
Serna**

2. *“EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK ETA INSTRUMENTALAK OSASUN MENTALEAN”* abenduaren 11tik 13ra. Mariel Pellegriniren eskutik, *online* modalitatean; harrera ona izan zuen ETOLEko elkargokideen eta beste elkargo batzuetako kideen aldetik.



6. OKUPAZIO-TERAPIA EZAGUTZERA EMATEA ETA ZABALKUNDEA EGITEA

Bizkaiko Osasun Foroa.

Osasun Foroak ez du batzarrik deitu 2020an.

Haurren eta nerabeen Arretarako Arloko Batzorde Iraunkorra

Azaroaren 19an egindako batzarrerako gonbidapena jaso zuen ETOLEk; ZOOM bidez egin zen.

Eskuliburuak eta Txostenak

- “Okupazio-terapia Geriatrian” agiria egin dugu, elkargokideen laguntzari esker. Hurrengo urtean egingo dugu agiriaren zabalkundea, modu koordinatuan.
- “Okupazio-terapia Hezkuntzan” agiria egin dugu, elkargokideen laguntzari esker. Hurrengo urtean egingo dugu agiri horren zabalkundea ere, modu koordinatuan.

ETOLEren newsletter-ak

Urtean zehar 6 newsletter bidali diegu guztira gure elkargokideei, albiste garrantzitsuenen, ikastaroen eta lan-eskaintzen inguruko informazioarekin; elkargokideen % 54,5ek ikusi ditu buletinok.

ETOLE sare sozialetan

2020an, gure sare sozialak eguneratzen jarraitu dugu; gure elkargokideekin, beste okupazio-terapeuta batzuekin eta, oro har, jendearekin zuzeneko eta hurbileko harremana izateko modua dira sare sozialak. Horrez gain, gure diziplinaren zabalkundea egiteko tresna gisa erabiltzen saiatzen gara. Aurten, 82 argitalpen egin dira guztira.



Nº de personas que nos siguen a 31 de diciembre de 2020 en Facebook: 2213

Twitter: 961 jarraitzaile, 2020ko abenduaren 31n.



2020an, Instagrameko kontua estreinatu du ETOLEk; urrian izan da hori, okupazio-terapiaren egunarekin bat eginez.



etole_euskadi

Editar perfil


3 publicaciones
120 seguidores
58 seguidos

ETOLE EUSKADI

7. LANKIDETZA ESTATU MAILAN

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorra

Kontseilu horren bi batzarretan hartu du parte ETOLEk 2020an –telematikoki–, eta batzar horietako aktetan jasotzen diren ildoak lantzen jarraitu da.

Nabarmentzekoa da lan koordinatuaren emaitza; azkenean, onartu da eta eman da ezagutzera Kode Deontologikoa, eta ekainean "COVID-19aren inpaktua Okupazio-terapian" txostena argitaratu zen.

Socinto

Okupazio-terapiako Elkargoen Kontseilu Orokorraren batzarretako batean, elkargoa Socinton kontseiluaren bitartez ordezkatzearabaki zen.

Lankidetza-hitzarmenak

2020. urtean, lankidetza-hitzarmen guztiak aztertu dira, haiek eguneratzeko. Madrilgo AYTONA zentroarekin sinatzeko tramiteak ezarri dira. Laster egongo dira eskuragarri webgunean.

8.-LIBURUTEGIA

Aurten liburutegi osoa aztertu dugu, eta liburu zaharkituak kendu, eta 21 liburu berri erosi dugu. Aurrez, ale batzuk galdu direla ohartu gara. Aleren bat duzuen begiratu eta, hala bada, liburutegi-zerbitzuarekin harremanetan jar zaitezten eskatzen dizuegu.

ALE BERRIAK	
Okupazio-terapiaren esku-hartzea	Aisialdia, ongizatea eta bizitza-kalitatea

(Intervención Terapia Ocupacional)	(Ocio, bienestar y calidad de vida)
Arreta Psikosozialaren eskuliburua (Manual atención Psicosocial)	Okupazio-terapia komunitarioa
Hesgailuei, igeltsuei eta ferulei buruzko eskuliburua (Manual vendajes, yesos y ferulas)	Printzipio kontzeptualak okupazio-terapian (Principios conceptuales en terapia ocupacional)
Arrazoibide klinikoa eta diagnostikoa (Razonamiento clínico y diagnóstico)	Printzipio kontzeptualak okupazio-terapian (Principios conceptuales en terapia ocupacional)
Gizakiaren okupazio-eredua (Modelo de ocupación humana)	Ikerkuntza kuantitatiboa eta ebidentzian oinarritutako jardunbidea (La investigación cuantitativa y la práctica basada en la evidencia)
Okupazio-terapia Disfuntzio fisikoetan (Terapia ocupacional en Disfunciones físicas)	Okupazio-terapia eguneroko bizitzako jardueretan (Terapia ocupacional en las actividades de la vida diaria)
Antropologia medikuko funtsezko kontzeptuak (Conceptos clave de antropología médica)	Okupazio-terapia geriatrian (Terapia ocupacional en geriatría)
Psikopatologia orokorra okupazio-terapian (Psicopatología general en terapia ocupacional)	Teknika kognitiboak eta jokabidea lantzeko okupazio-terapian (Técnicas cognitivo-conductual en terapia ocupacional)
Osasun mentaleko eskuliburu praktikoa okupazio-terapian (Manual práctico de salud mental en terapia ocupacional)	Arte- eta sormen-jarduerak Okupazio-terapian (Actividades artísticas y creativas en Terapia ocupacional)
Okupazio-terapiarako Europako esparru kontzeptuala (Marco conceptual europeo para terapia ocupacional)	Elikadura-jokabidearen nahasmenduetan esku hartzeko gidaliburua (Guía de intervención en trastornos del comportamiento alimentario)
Okupazio-terapia eta osasunaren sustapena (Terapia ocupacional y promoción de la salud)	Artikulu zientifikoak okupazio-terapian (El artículo científico en terapia ocupacional)

9.-KUDEAKETA EKONOMIKOAREN URTEKO TXOSTENA

2020ko BALANTZE EKONOMIKOA

DIRU-SARRERAK. 33.487,96 €	
GASTUAK	
Bulegoaren alokairua 3.267€	-
Zerbitzu profesionalak	-12.501,93€
Aseguru-primak. 3.084,60€	-
Banku-zerbitzuak	-493,43€
Batzordearen gastuak 1.416,77€	-
Beste zerbitzu batzuk 4.133,53€	-
Ikastaroen gastuak 18,20€	-
Konponketa- eta kontserbazio-lanak 482,06€	-
Gastuak, guztira. 24.915,76€	-
AZKEN EMAITZA	8552,20€

10.- ONDORIOAK

Batzordekide garen aldetik, interesgarria iruditzen zaigu, amaitzeko, ohar batzuk egitea:

- Oso harrera ona izan zuen batzar orokorra *online* modalitatean antolatzeak, eta inoiz baino parte-hartze handiagoa izan genuen.
- Okupazio-terapiari laguntzeko esku-hartze maila guztiak lortzeko, funtsezkoa izaten jarraitzen du Batzordea eta lan-batzordea osatuta egotea. Era horretan,

oraindik ere hutsik daude postu batzuk (Bizkaiko ordezkaria, kanpo-harremanak, intrusismoa, liburutegia, etab.)

- Kendu egin da langabezia-kuota (batzarrean onetsi ondoren); ekitatea bultzatzen du, bai eta elkargoaren diru-zaintza arloaren funtzionamendua ere.
- Batzordea dagoen material ofizial guztia aztertzen ari da, hizkuntza inklusiboa bultzatzeko, eta edukia bi hizkuntzatan egon dadin.
- Erretiroa hartzen duten pertsonak *ohorezko elkargokide* izatea proposatzeko erabakia hartu da, diziplina aberasteko, eta gainerako elkargokideentzako eredutzat jo daitezen, eta haien lana eskertze aldera.
- Azpimarratzekoa da inbertsio ekonomiko handia egiten eta denbora asko eskaintzen ari zaiola webgunea diseinatzeari eta martxan jartzeari, eta zailtasun handiak izaten ari garela behin betikoz abiarazteko. Halaber, ETOLEren logotipoa modernizatu dugu, bere esentziari eta Elkargoaren markari eutsiz.
- Prestakuntza-batzordea: bi prestakuntza-ekintza egitea aurreikusten genuen, batzorde hori “nekatuta” dagoen arren. Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu laguntza beharra dugula eta batzordea berri beharra dagoela.
- Intrusismo-batzordea: Batzordeak agintea hartu aholkularitza juridikoko jarduketei eta eginkizunei dagokienez. Beste aholkularitza-enpresa batekin harremanetan jarri zen, arlo guztietan ordezkaria handiagoa izateko asmoz. 2021ean, gai jakin batzuetan enpresa horrekin lanean hastea aurreikusten dugu. Bide batez, gogorarazi nahi dizuegu laguntza beharra dugula eta batzordea berri beharra dagoela.
- Batzordea bere lana profesionalizatzeko saiakera egiten ari da, indarrean dagoen legerian oinarritutako jardute-protokolo xehatuagoak prestatuz, eta bide ofizialetatik, ETOLEren ikuspegia eta misioa kontuan hartuta.
- Gogorazten dizuegu Batzordea prest dagoela edozein zalantza argitzeko edo, besterik gabe, informazioa partekatzeko, laguntza eskaintzeko, etab. Guztiok gara eta guztiona da ETOLE!!!

1. Eranskina.

2020. URTEKO DATU-BILKETA

Kontuan izanda 2020ko elkargokide kopurua 223 lagunekoa izan dela, ETOLeren datu estatistikoak erakusten dizkizuegu jarraian, elkargokidetzei dagokienez.

ELKARGOKIDETZEAK	
ALTAK	21
BAJAK	7

ADINA	
> 35 urte	84
35-44 urte	100
45-54 urte	22
55-64 urte	10

65-69 urte	2
> 70 urte	0
Ez dago jasota adina	5

EREMU GEOGRAFIKOAK	
ARABA	60
BIZKAIA	77
GIPUZKOA	86

SEXUA	
GIZONAK	16
EMAKUMEAK	207

ENPLEGU-ARLOAK	
GERIATRIA	45
FISIKOAK	50

SOZIALA	8
OSASUN MENTALA	23
PEDIATRIA	12
ORTOPEDIA	3
ADIMEN- URRITASUNA	1
HEZKUNTZA	9
LANGABEZIA	26
BESTE BATZUK	15
EZ DAGO JASOTA	31

IKASKETA-MOTAK	
DIPLOMATURA	170
GRADUA	52